



Diputazioa, diru laguntza berrien bila

Azaroaren 6ko uholdeek kaltetutakoentzat diru laguntza berriak lortzeko, Espainiako Gobernuarekin bildu da Diputazioa.

DIRU laguntza gehiago bilatzen ari dira Diputazioa eta Udalak, azaroaren 6ko uholdeetan kaltetuei ordaintzeko. Aseguruaren Kontsorzioak kubitzen ez dituen kasuei nola lagundu ari dira aztertzen. Diputazioaren esanetan, kalteak haundiagoak dira aurreikusitako laguntzak baino. Hori horrela, Espainiako Gobernuarekin bildu da, beste diru-laguntza batzuk atera ditzan. /4



Hernanik ere «EZ», emakumeen aurkako indarkeriari

EMAKUMEEN aurkako indarkeria bukatu dadila eskatzeko, kontzentrazioa egin zuten atzo hainbat hernaniarrek, Txoko Feministak eta Bertintasun Kontseiluak deituta. Herriar mordoak bildu zen Plaza Berrin *Eraso sexistarik ez* zioen pankartaren atzean. Besteak beste, bertan izan ziren uztailaren 3an hil zuten eta erasotu zuten Rosario Roman de la Fuenteren eta Yolanda Sanchezen senideak. ||

❖ 2. ESKUKO AZOKA

Denetarik erosteko aukera, gaur

Bigarren Eskuko Azoka izango da gaur Atsegindegian, 10:30-etatik 13:30etara. Liburuak, arropa, bitxiak, jostailuak, apaingarriak... Denetik erosteko aukera izango da. ||

❖ BERTSOLARITZA

Gaztelumendi eta Rezola, finalerdietan gaur, Arrasaten

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerdietako lehenengo saioa izango da gaur Arrasaten. Bertan izango dira Beñat Gaztelumendi eta Agin Rezola. /3

❖ KONTZERTUA

Santa Zeziliako kontzertua, gaur

Kantuz Abesbatzak, Hernaniko eta inguruko txistulariek eta Metal boskoteak kontzertua eskainiko dute gaur, 19:00etan, Sandiusterrin. /2

❖ GAZTETXEA

Antimilitarista Eguna, gaur

Hitzaldia, bazkaria, dokumentala eta kontzertuak izango dira gaur Gaztetxean. /2

GAUR KRONIKAN

Laburrak: San Joan Konpartsa, Banaizbagara, presoak... /2

KIROLAK: paleta, futbola, saskibaloia, erremontea... /7

Eskelak /7

Goizuetak: Feri eguna /8



2011 likidazioa

Latex eta viscoelastica koltxoiak. Ohe artikulatuak eta motordunak

Koltxoietan lehengoak gara.

Orain duzu aukera!

Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:30 16:00 - 19:30
Larunbata: 10:00 - 14:00

zure koltxoi denda hernanin

15 urte atsedena eta armairuak neurri zuri eskaintzen

Agustindarren, 6 (Eroski berriaren ondoan) • Tel.: 943 556 201

SANTA ZEZILIA KONTZERTUA

Ahotsa, saxoa eta txistuaren erritmora, gaur

Kantuz Abesbatzak, txistulariek eta Metal boskoteak kontzertua eskainiko dute gaur, 19:00etan, Sandiusterrin.

SANTA Zezilia Eguna asartearen izan zen eta horren harira kontzertua eskainiko dute gaur, Kantuz Abesbatzak, Hernaniko eta inguruko txistulariek eta Metal boskoteak. Kontzertua arratsaldeko 19:00etan izango da Sandiusterrin. Denera, 13 abesti interpretatuko dituzte.

Kontzertua hiru ataletan

banatuko dute. Hasteko, txistulariek eta Metal boskoteak joko dute Patxi Apeztearearen zuzendaritzapean. Lau abesti joko dituzte. Ondoren, Kantuz Abesbatzaren txanda izango da. Igor Arroyoren aginduetara 7 abesti abestuko dituzte. Eta kontzertua bukatzeko, denek elkarrekin bi abesti eskainiko dituzte. ||

Egitaraua

Txistulariak eta Metal boskotea
Zuzendaria: Patxi Apeztekoa
1. Aietsu (Biribilketa)..... R. Esnaola
2. Amaiur J. Iruetagoiena
3. Bizkaia maite B. Lertxundi, Mold.: X. Zabala
4. Kontrapasa X. Lete, Mol.: J. Astiazaran

Kantuz Abesbatza
Zuzendaria: Igor Arroyo

1. Rorando coeli Jan Campanus Vodnansky
2. Nahi zu yayin Pablo Sorozabal
3. Zure boza Xabier Sarasola
4. Xauli-xauli Tomas Garbizu
5. Maitasun atsekabea J. Guridi
6. Arrosa lore lore Mol.: Luis Elizalde
7. Axuri beltza (Herrikoia) Mol.: J. Busto

Guztiak batera

1. Behin batean Loiolan Hitz.: Bilintx, Mol.: J. Astiazaran
2. Habanera X. Lete, Mol.: J. Astiazaran

❖ **BANAIZBAGARA**

Haur kantak ikasteko tailerra

Euskerazko haur kantak eza-gutu eta ikasteko tailerra antolatu du Banaizbagara elkarteak gaur, euskeraz ez dakiten helduentzako. Biterin izango da 10:30etatik 11:30etara. Dohainik da eta izena emateko: 645 733 818. ||

❖ **PRESOAK**

Herri batzarra, gaur

Preso eta iheslarien egoera aldatze bidean, hiru herri batzar egin dira eta bertatik ateratako ideiak lantzeko, gaur ere herri batzarra izango da, 10:00etan, Biterin. Batzarra irekia da eta herritar guztiei luzatu diete gonbidapena. ||

❖ **GAZTE ASANBLADA**

Asanblada, gaur zortzi

Hernaniko gazteak Gazte Asanblada berritzeko asमतan lanean dabilta, eta datorren larunbaterako beste hitzordua jarri dute. ||

❖ **LEOKA TABERNA**

Mus Txapelketan izen ematea, zabalik

Leoka tabernan Mus Txapelketa antolatu nahian dabilta, eta aurrera ateratzeko 16 bikotek eman behar dute izena. Izen ematea zabalik egongo da bi astez. Inskripzioa, 20 euro bikoteko. ||

❖ **SASOIKO**

Sendabelarrak ezagutzera joateko, izen ematea gaur

Sasoiko zentruak, sendabelarrak ezagutzera joateko irteera antolatu du bihar. Mikel Benito giarekin, Urgullera joango dira. Izena gaur eguerdia baino lehen eman behar da: 943 33 11 83/ 656 72 14 92. ||

❖ **SAN JOAN KONPARTSA**

Santo Tomasi buruzko bilera

San Joan Konpartsak bi bilera egingo ditu asteazkenean, Biterin: 19:00etan Santo Tomasi buruzkoa eta 19:30etan San Joanetakoa. ||

❖ **ONGINTZA**

Menpekotasuna duten adinekoak zaintzeko, ikastaroa

Menpekotasuna duten adinekoak nola zaindu ikasteko, ikastaroa antolatu du Hernaniko Ongintza Udal Patronatuak, Matia-Innova fundazioarekin. Ikastaroa datorren astean izango da, asteleheneetik ostiralera, egunero, 15:00etatik 17:00etara, Biterin. Izena emateko, Ongintzan (943 55 78 54) edo Ereñotzuko Auzo Udalean (943 55 10 00). ||

❖ **UDAL LIBURUTEGIA**

Ipuin kontaketa, asartearen

Asteartearen, ipuin ordua izango da Lupe Lekuonaren eskutik, Udal Liburutegian. Bi saio eskainiko dira. Lehengo arratsaldeko 17:30etan izango da 3-4 urteko haurrentzat. Eta bigarrena 18:00etan, 5-7 urteko haurrentzat. Saio hauek Eusko Jaurilaritzak lagunduta antolatu dituzte Udalak. ||

❖ **ASTIGARRAGA**

Hipo eta Tomax pailazoak, bihar

Hipo eta Tomax pailazoek *Beldurraren etxean* ikuskitzuna eskainiko dute bihar Astigarragako kultur etxean. 17:30etan hasiko da ikuskitzuna eta ordubetz kontatuko dituzte bi pertsonaien istorio xebebreak, kantuak eta jolasak; eta hainbat ezusteko emateko asmoa ere azaldu dute. Sarrerak Astigarragako kultur etxean daude salgai, 2,5 euroan eta bihar orduete lehenago ere izango dira. ||

❖ **SANMARKO**

Hondakinen prebentzioari buruz, hiru kanpaina

Aste honetan zehar, Hondakinen Prebentzioarako Europar Astea izaten ari da eta horrekin bat eginda, Sanmarko Mankomunitateak prebentzioaren inguruko 3 kanpainen berri eman du. Gabonen ostean jarriko dira martxan. Eskoletan, erosketetan eta azoketan zentratuko dira. ||

Antimilitarista eguna gaur, Gaztetxean

Herri bazkaria izango da, besteak beste. Izena emateko zerrendak, Garin eta Gaztetxean.

BARDENAS ya Antimilitarista Ekimenarekin bat eginez, Antimilitarista Eguna izango da gaur, Kontrakantxa Gaztetxean. Nafarroako Erriberako hainbat herritako lagunak ere bertan izango dira, hala nola, tuterarrak.

Goizetik hasita, izango dira: hitzaldi antimilitarista, herri bazkaria, *Donde se cuecen las guerras* dokumental emanaldia eta kontzertuak, *A kaskarla* eta *Tírame del dedo que me pedo* taldeekin. Bestalde, *Bardenas ya* argazki erakusketa dago.

Bazkarira joan nahi duenak izena emateko zerrenda Garin tabernan eta Gaztetxean bertan dauka.

Kontzentrazioa, gastu militarren aurka, Tuteran
Abenduaren 10ean, larunbata, kontzentrazioa deitu dute Tuteran, *Gastu militarren aurka, moztu itzazu!* lelopean. Kontzentrazioa Foru Enparantzan izango da eguerdiko 12:00etan. ||

Egitaraua:

11:30etan, Hitzaldi antimilitarista.
14:00etan, bazkaria.
16:30etan, 'Donde se cuecen las guerras' dokumentala.
22:00etan, kontzertuak: *A kaskarla* eta *Tírame del dedo que me pedo*.
Azaroaren 1etik 30era 'Bardenas ya' argazki erakusketa, Gaztetxean.
Abenduaren 10ean, kontzentrazioa Tuteran: 'Gastu militarren aurka, moztu itzazu!'

kixkal
taberna

nagusia, 15 hernani

Vanessa eta Miguelo
Harategia eta aurrez egindako janaria

ADI!!! ADI!!!

Orduete baino lehenago eskatu OSTIRAL-LARUNBATA-IGANDEA

<p>1. SUPER MENUA</p> <p>Babarrunak sakramentuekin + Txerri kostilla errea patatekin</p> <p>14,95 €</p>	<p>2. SUPER MENUA</p> <p>Haragi paella + Kodillo errea patatekin</p> <p>14,95 €</p>	<p>3. SUPER MENUA</p> <p>500 gr Entsaladilla 500 gr Txanpi + Oilasko errea patatekin</p> <p>14,95 €</p>
--	--	--

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

IGANDE TAN

Entsalada + saiheskia edo baserriko oilaskoa

10 euro

www.zumitza.com

ZUMITZA
Kale Nagusia 50
20120 Hernani
Tel. 943 33 37 58

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA - GPuntua

Finalaren bila, Rezola eta Gaztelumendi gaur,
Agirre eta Irazu bihar

FINALA ganean da. 8 bertsolari pasako dira finalera, eta 18 geratzen dira txapelketan. Finalerdiak hiru saiotan jokatu dira; saio bakoitzan 6 bertsolari, aurreko saioetatik sailkatu direnak. Tartean, Hernaniko bertso eskolako 4 geratzen dira, eta laurek asteburu honetan kantatuko dute: Agin Rezola eta Beñat Gaztelumendik gaur, 17:30-etan, Arrasateko Uarkape kiroldegian; Unai Agirre eta Jexux Mari Irazuk bihar, Tolosako Usabal kiroldegian.

Finalerdietako azken saioa Hernanin jokatu da, abenduaren 4an, Galarretan; bertan ez da Hernaniko ordezkariarik izango, baina ikusmin ikaragarria bai, han jakingo baita zein 8 bertsolari diren finalistak.

Saio gogorrenak, gaur eta bihar

Zozketatu egin da zeinek kantatuko duen saio bakoitzean, eta gaurkoa eta biharkoa dira gogorrenak, bertsolari



Agin Rezolak eta Beñat Gaztelumendik gaur kantatuko dute finalerdietan, Arrasateko Uarkape kiroldegian.

riei begiratuta. Gaztelumendik azken urte bikainak egin ditu; hain justu, orain dela 4 urte Gipuzkoako final honetan kantatu zuen, eta bigarren postua lortu, Mendiluzeren atzetik. Aurten, bera da txapelerako faboritoetako bat. Rezola ere purian da. Gipuzkoako txapelketan lehenengo fasetik kan-

tatu behar izan du, eta honaino iritsita, zer galdurik gabe ariko da gaur, astigartarra.

Agirrek eta Irazuk bihar dute saioa, Tolosan. Biek ere, orain dela lau urteko finalean kantatuta, aukera haundiak dituzte berriz ere finala harpatzeko, beren mailan kantatzen badute.

Kontrarioak ere bikainak dituzte. Sarriegi, Euskal Herriko finalista; Jon Martin, Gipuzkoako bigarrena 2003an; Zubeldia, Gipuzkoako finalista izana; Elustondo, aurten maila ikaragarrian ari dena...

Zuzenean finalera pasako da saio bakoitzeko lehenengoa. Gainerako 5ak, puntuazioz. ||

FINALERDIAK

ARRASATE
GAUR, 17:30

UARCAPE KIROLDEGIA
Beñat Gaztelumendi
Felix Zubia
Alaia Martin
Agin Rezola
Iker Zubeldia
Iban Urdangarin

TOLOSA

BIHAR, 17:30

USABAL KIROLDEGIA
Jexux Mari Irazu
Aitor Sarriegi
Unai Agirre
Beñat Lizaso
Nerea Elustondo
Iñigo Izagirre

HERNANI

ABENDUAK 4, 17:30

GALARRETA PELOTALEKUA
Jon Martin
Jokin Uranga
Iñigo Mantzisor *Mantxi*
Amaia Agirre
Iñaki Apalategi
Ainhoa Agirreazaldeg

gabonetako promozioa !! EXISTENTZIAK BUKATU ARTE

>> larunbata arratsaldetan ere irekita: 17:00 - 19:30

ibai mendi

Nafar kalea 23 - 943 33 37 24 - Hernani

BEZEROARI ATEAK ZABALTZEN

www.ibaimendi.com

on-line salmenta sartu eta ikusi !



TERNUA
SOFTCELL
FORROA
GIZONA /
EMAKUMEA

LEHEN: 150'00€
89'95€

TERNUA
TXAMARRA
SHELL TEC
PERMEABLEA -
TRANSPIRABLEA
UNISEX
3 KOLORE

LEHEN: 215'00€
129'95€




TERNUA
GALZA
ELASTIKOA
GIZONA /
EMAKUMEA

LEHEN: 110'00€
59'95€



TERNUA
SUDADERA 5 KOLORE

LEHEN: 69'95€
39'95€



**MUNDUKO
KOPAKO
TXAPELDUNA
2011**

**OIHANA
KORTAZAR**

HITZALDIA
Abenduaren 2an
Biteri kultur
etxean
19:00
ibaimendi.com

trangoworld

MOTXILA
3 KOLORE

LEHEN: 40€
29'95€



UHOLDEAK AZAROAK 6 - KALTE ORDAINAK

Administrazioak, diru-laguntza gehiago bilatzen

- Aseguruek kubritu ez dituzten kalteei nola aurre egin aztertzen ari dira Udalak eta Diputazioa.
- Espainiako Gobernuak badu lege-dekretu bat, katastrofeetako diru-laguntzak zehazten dituena (307/2005). Dekretu hori motz geratzen dela adierazi dio Diputazioak Espainiako Gobernuari.

DIRU laguntza gehiago bilatzen ari dira administrazioak, azaroaren 6ko uholdeetako kalteetuei ordaintzeko. Aseguruen Kontsorzioak kubritzen ez dituen kasuei nola lagundu ari da aztertzen Diputazioa, eta bere esanetan, kalteak haundiagoak dira aurreikusitako laguntzak baino (307/2005 Errege Dekretua). Horregatik, Diputazioa Espainiako Gobernuarekin bildu da, beste diru-laguntza batzuk atera ditzan.

Kalte haundiak, baratza eta baserri bideetan
Joan den ostiralean Sandiusterrin izan ziren Diputazioko kideak, eta bertan Garbiñe Errekondo diputatuak azaldu zuen, kalte haundiak jasan ditzutela Urumea ondoko bara-

tzek, eta baita baserrietako bideek ere. Espainiako Gobernuak azaldu omen zuen, diru-laguntza horiek Nekazaritza eta Landa Ministeriotik ematen ditzutela. Lantegi, denda, etxebizitza, automobil eta motorrentzat diru-laguntza gehiago ere eskatu ziren, eta kasu horietan, interes baxuko kredituak (ICO linea) eskatzeko aukera izango dela adierazi omen zuen Espainiako Gobernuak.

Eusko Legiltzarrak eskatu du, uholdeen kontrako obrak lehenbailehen hasteko
Uholdeei buruz hitz egin du Eusko Legebiltzarrak ere, eta hainbat eskaera egin ditu. Batek, administrazio guztiei eskatu die, lehenbailehen hartzeko neurriak uholdeen



Uholdeen kontrako neurriak lehenbailehen hartzeko eskatu du Eusko Legebiltzarrak.

Interes baxuko kredituak (ICO linea) eskatzeko aukera izango da ziurrenik, uholdeek kaltetuentzat

kontra. Bestetik, Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Espainiako Gobernuari esijitzeko, diru-laguntza linea berri bat ateratzea aseguruak ez dutenentzat, 2010eko Ziklogenesian egin zen moduan. ||

Aseguruen Kontsorzioa, 3.000 eskaeratik gora aztertzen

UHOLDEETAN kalteak jasan eta aseguruaren dutenak hasiak dira kalte ordainak jasotzen, Aseguruen Kontsorzioetik. 140 kasutan diru laguntzak eman dituztela jakinarazi zuen asteartean Kontsorzioak, eta guztira 247.000 euro emanak dituela. Beste 3.200 eskaera aztertzen ari omen dira, eta 100 milioi eurotara iritsi omen litezke kalte-ordainak. Txarrenera, 4 hilabete barru ordainduko omen dira laguntzak. Kasurik «errazena» ordaindu dira orain arte; gainerakoek denbora gehiago behar omen dute, industria eta komertzioetako kasuak, adibidez. 35 peritu jarri ditu Kontsorzioak lanean, eta oraindik badago aukera eskaerak egiteko:

Telefonoz: 902 222 665. Internetez: www.consorseguros.es

SANTIO ZEHARRA
ASTIGARRAGA

2 eta 3 logelako 9 etxebizitza
terraza handiak
garaje itxiak
polikiroldegi ondoan
ERAIKUNTZA BERRIA

243.000 € 'tik

ERENOZU
ETXE ELKARRI ATXIKIAK

BIZI ZAITEZ HERNANI
HERRIGUNETIK 10'ra!

1. Blokea
2. Blokea
3. Blokea

273.500 € 'tik

www.oraune.com
ventas@oraune.com

943 44 56 30

ORAUNE



Juan Luis Eizmendi

Lasarte-Oriako Goiegi jatetxeko nagusia eta sukaldaria:

«Q ziurtagiriak eguneroko lanean hobeto funtzionatzen laguntzen du»

Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q ikurra. Goeigi jatetxeak 3garren urtea du aurtengoa eta Jose Luis Eizmendik izan dituzten onurak azaldu ditu.

Zergatik erabaki zenuen sektore turistikoarekin lotura duten kalitatezko zenbait sistemen eta programen alde egitea?

Hobeto lan egiten lagunduko zigula pentsatzen nuelako. Nik horren seguritatea nukan. Ostalaritzara dedikatzen ez diren beste enpresa batzuetan kalitate sistemekin lan egitera ohituta nengoen, ISOarekin konkretuki, eta banekien asko lagunduko zigula, besteak beste, lana antolatzen. Eta horrek, azkenean, emaitzak hobetu egiten ditu.

Zer nolako onurak ekarri dizkio zure negozioari Q Ziurtagiriak?

Onura nabarmenena jarri dizkigun lan prozedurak direla esango nuke: jeneroa eskatzeko, jasotzeko eta biltegitratzeko garaian; eta baita garbitasun aldetik ere, bai elikagaiena eta baita orokorrean, jatetxe osoarena. Guztia daukagu prozedura batzuen bidez zehaztuta. Orain, beste era batera egiten dugu lan. Berdin da pertsona bat oporretan badago, edo normalean egiten duena ez badago, edo norbait berria sartzen bada... guztia ondo ezarrita dago eta ondorioz, lana hobeto egiten da eta emaitza hobekuntza lortzen dira.

Zein barne hobekuntza izan dituzue ziurtagiria ezartzearen ondorioz? Antolakuntza, kudeaketa eta azpiegitura aldetik? Q-ak helburu batzuk jartzen



Jose Luis Eizmendi, Goeigi jatetxearen sarreran.

dizkizu, eta guk, horiek existentzia gisa finkatu ditugu, eta urtero errebisatzen ditugu. Helburu horietako batzuk zerikusitu zuzena dute azpiegituren hobekuntzarekin, azken finean, beti egoten da hobetzeko zerbait; eta Q-ak, horretara bultzatzen zaitu. Guk egia esan, azpiegitura aldetik ez dugu aldaketa handirik egin, hobekuntza enpresa antolaketan egin dugu. Orain arau guztiak ezagutzen ditugu, osasungintzakoak, industria sailarekin bete beharrekoak, sute arauak, elektrizitate arauak... Langileek ere sumatu dute hobekuntza: ikastaroak, lan egiteko dinamika berriak... Zentzu guzti hauetan Q-aren eragina handia izan da.

Bezeroaren beharrak eta nahiak asetzeko garaian, zuzenean eragin duten hobekuntzak zein izan dira?

Hori jakiten zailagoa da. Nik ez dut uste bezeroek ezer konkreturik antzemateko okasiorik izan dutenik, ez badira behintzat oso-oso maiz etortzen direnak. Zaila da, askotan atzean dauden detaileak dira hobetzen direnak, baina komedorera ateratzen den itxura ez da asko aldatzen. Plater batean esaterako, goarnizioa egi-

teko modua aldatu dugu, eta hori bezeroak antzematea ez da batere erraza.

Zer esango zenioke turismoko sektore profesionalari, Q Ziurtagiria ezartzera animatu daitezen?

Aurretik esandako guztia. Eta batez ere, esango nieke, nahiz eta hasiera batean kostua duen, bai diru aldetik eta baita bitarteko batzuk jarri behar direlako, inbertsio hori erreperatzen dela. Q-ak hobeto funtzionatzen laguntzen du, bezeroari eman beharreko zerbitzuan egonkortasuna mantentzen laguntzen du.

Aholkatuko zenieke beste enpresariei halako kalitate sistema batekin lan egitea?

Bai. Ez dakit Q-a izango den aterako dugun sistema, edo beste izen bat jarriko diogun... baina nire ustez, jatetxe batek funtzionatzen jarraitzeko beharrezkoa izango da halako sistema bat izatea. Osasungintzakoak zerbait gogorrrago jarriko ote duten, edo industrietatik zerbait gehiago exijitzen hasiko ote diren... beti daude halako zurrumurruak, eta bezeroa ere gero eta informatuagoa dago, sentibilizatua dago Kalitatearen

gaiarekin. Nire ustez denborarekin beharrezkoa izango da halako ziurtagiriaren bat izatea.

Uste duzu Q Ziurtagiriak zure negozioa lehiakorrago egiten duela?

Neurri batean bai, agian orain argiago ditugu gure lehentasunak. Hala ere, mundu honetan sartu garenetik, konturatu naiz enpresa eta jatetxe asko atera egin direla Q ziurtagiritik, nolabait lehiakortasunagatik. Nire ustez Q-a, jendea erakarriko duen marka bat dela pentsatzen dute; horretan oker daude. Norberak sinistu behar du Q-ak hobeto funtzionatzen lagunduko dizula. Garbi daukat fatxadetan dagoen ziurtagiria bezero askok ez dutela ezagutzen. Q-ak ez du hobeto sukaldatzen erakusten, dinamika batzuk jarri dizkigu urte urte gure sukaldatzeko era hobetzeko; ez digute jaki goxoagoak nola prestatu erakusten.

Zein dira Ziurtagiriaren bidez landu eta ezarri diren ezagutza garrantzitsuenak edo baliagarrienak?

Urtero, urte bukaeran edo Q-aren errebisioa egiten dugunean, azkeneko urteko jarduna pixka bat aztertzen dugu, eta

Eusko Jaurlaritzak, Turismoko Euskal agentziarekin, Basquetour-ekin bat, enpresariari eskura jartzen ditu beharrezko tresnak eta laguntzak beren negozioak lehiakorrago izan daitezen; honako programa hauen bidez:

Jardun Egokiko programa: Programa honen helburua da, enpresariak 'profesionalizatzea' eta nora iritsi nahi duten zehazten laguntzea. Euskadin, 274 establezimenduk dute Kalitatezko Turismoa lortzeko Konpromiso Diploma.

Kalitate Turistikoaren Q Programa: Programa honek ziurtatzen du bezeroen beharrak eta nahiak beteko direla. Euskadin, 267 establezimenduk dute Turismoko Kalitatezko Q Ziurtagiria.

Bikaintasun Ereduko programa, EFQM: Programak organizazioei kalitate bikaina lortzea proposatzen die. Euskadin 17 establezimenduk jarraitu dute eredu hau.

Jar ezazu Kalitate Turistikoaren Q-a zure establezimenduan!

94 607 75 86 - 94 404 74 70
www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

ahurrengo urteko helburuak ezartzen ditugu. Nire ustez dinamika hori izan da garrantzitsua.

Zein aldaketa egin dituzu edo egingo dituzu aurrerantzean, zure negozioan, kalitatea bultzatzeko? Aldaketarik ez dugu aurreikusita. Etorkizunera begira, Q-arekin jarraitzea da helburua. Dinamika batean sartu gara eta hori mantentzea da helburua. ||



Aurten ere usoa urrutitik pasatzen ikusi dute.

EHIZA - BEDA OSOA ZABALIK URRIAREN 12TIK URTARRILAREN 31RA

Usoa altu pasa da, hego haizeak zakar jo ez duelako

Hego haizeak suabe jo du, eta ondorioz, Hernanitik ez da uso askorik pasa; orain arte, 97 ehizatu dira. Birigarroaren ehizarekin aldiz, kontentu dira ehiztariak; dexente pasa da, eta momentuz 2.076 bota dituzte.

URTE erregularra ari da izaten ehiztariarentzat aurtengoa; nahi adina ehizatu ez badute ere, Beda Osoa zabaldu zenetik bota dituzte pieza batzuk. Kronikak Txantxangorri elkartearen lehendakariari, Juan Cruz Muñoiari, galdetu dio pasea nola ari den izaten, zenbat ehizatu den, non gehien... eta datu guzti horiek emateaz gain, lehendakariak gaineratu du ehiztariak pozik direla, gustura, aurten botatzen ari direnarekin: «joan den urtea zeharo txarra izan zen, eta aurten botatakoarekin kontentu dira».

Urriaren 12an zabaldu zen Beda Osoa ehiztariarentzat, eta ordutik, Europako hotzetik Afrikako berora dijoazen usoak, birigarroak, oilagorak... denetatik ehizatzen auzera zabaltzen da. Hilabete preziatuenak urria eta azaroa izaten dira, eta horien balantzea egun du Muñoiak.

JUAN CRUZ MUÑOIA -
TXANTXANGORRIKO LEHENDAKARIA:

«Orain arte, usoa ehizatzen egun aproposenak urriaren 21etik 31ra bitartekoak, eta azaroaren 11 eta 12 izan dira».

«Aurten ehiztari gutxiago dabil zozketetan, eta ziurrenik, azken urteetako ehiza txarraren eragina izango da; Azketako postuetan nabaritu da gehien».

Usoa, Larre-Gainen gehien
Usoa pasatzeko, hego haizea egitea izaten da aproposena, eta aurten, ez da falta izan. Hala ere, bada garrantzitsua den beste detaile bat: haizeak gogor jotzea. Eta hori faltatu da orain arte. Hego haizeak

suabe jo du, eta usoa dexente pasa bada ere, oso altu pasa da. Txantxangorri elkartearen jasotako datuen arabera, aurtengo egun onenak urriaren 21etik 31ra bitartekoak, eta azaroaren 11 eta 12 izan dira.

Larre Gaineko postuan bota dituzte uso gehien, 42 guztira. Bigarren postu txukunena Azketakoa izan da, bertan 29 bota baitituzte, Oriamendiren antzera. Azken honetan 26 bota dituzte. Hortaz, guztira, 97 uso bota dira Beda Osoa zabaldu zenetik. Muñoiak dioenez, usoa ehizatzea zaila izaten da eta Hernaniko postu batean dozena erdi bat uso ehizatzea festarako aitzakia izaten da.

Birigarroa, betiko neurrian
Birigarroa izaten da urtero, Beda Osoa zabaltzen denean gehien ehizatzen den espeziea. Bi larunbat seinatu izan dira aurten, birigarroaren pasean: urriaren 15a eta 22a. Kasu hone-

tan, Azketako postuetan bota da birigarro gehien, pentsa 2.076tik 1.086 bota dira bertan. Gainontzeko bi zonetako ehiza, parekoa izan da: Larre-Gainen 549 bota dira, eta Oriamendin 444 birigarro.

Oilagorra hasi da pixkanaka Europa iparraldetik etortzen
Oilagorra izaten da garai honetako beste izarretako bat, eta Muñoiak adierazi duenez, hasi da pixkanaka pasatzen. Europa iparraldetik garai honetan hasten da etortzen, eta pase handiena European hotz asko egiten duenean hasten da.

Gainontzeko espezieekin alderatuta, Oilagorren ehiza ezberdina izaten da. Basoan ehizatzen da oilagorra, txakurra-ekin, eta joan den urtetik, ehiztari bakoitzak harrapatzen dituen oilagor guztiak apuntatu behar ditu parte-orrian, eta oilagorri eraztun bat jarri behar zaie hanketako batean. Urte bete pasa da ehiztariak arau berri hori betetzen ari direla, eta ehiza denboraldia bukatzen denean, parte guztiak Ehiza Federazioa bidali behar dituzte.

Zozketetan, ehiztariak behera
Ilara luzeak izaten dira garai honetan arratsaldero Txantxangorri, hurrengo eguneko ehiza postuen zozketan parte hartzeko. Aurten ordea, zozketetan ehiztari gutxiago dabil dio Muñoiak: «ehiztari gutxiago dabil aurten zozketetan, eta azken urteetako pase txarren ondorioz dela esango nuke. Beherakada, batez ere, Azketako zozketarako nabaritu dugu. Aurreko urteetan, postuko hiru ehiztari izaten ziren zozketetan; eta aurten, bira iristea ere kosta egiten da. Larre Gainen zertxobait igo da eskaera, eta Azketan mantendu egin da».

Eguneroko parte egiteak, harrera ona

Diputazioak hala eskatuta, Txantxangorriko ehiztariak egunero ehizatu dutenaren parte egiten dute. Proba gisa ari dira egiten aurten, eta Muñoiak azaldu duenez, ehiztari ondo erantzun dute: «egunero etortzen dira zozketetara, eta egun horretan ehizatu dutenaren parte orria ekartzen dute beteta. Ondo ari dira erantzuten». ||

Diputazioak araudi berria argitaratu du, Gipuzkoarako

Euskadiko hiru Diputazioek ehizaren inguruko araudi berria argitaratu dute aurten, probintzia bakoitzerako bana. Urte asko da araudia berritu gabe zela, eta berriaren honako hau biltzen da, besteak beste: ordutegiak, ehizatu litezkeen espezieak, segurtasun tartea... Denboraldia hasi aurretik Txantxangorri elkarteak kide diren ehiztarien artean banatu zuen araudia, eta nahi duenak elkartearen bertan du eskuragarri. Bertan biltzen diren arau nagusiak, hauek dira:

- Debehatuta daude espezieak erakartzeko tresna mekaniko eta elektrikoak.
- Eskopeta erdi-automatiko eta automatikoetan ezin dira bi kartutxo baino gehiago eduki.
- Ezin da ehizatu elurak lurra etengabe estaltzen duenean.
- Ezin da ehizatu bide publiko eta trenbideetik 50 metro baino gutxiagoko distantziara.
- Ezin da ehizatu bide gorri edo berdeen inguruan, 20 metroko tartean.
- Debehatua dago ehizatzea ur publikoen inguruan, baita ubide inguruetan ere.
- Herriguneetan ehizatzea debehatua dago. Baita nekazal inguruetan ere, hala edo agroturismoetan. Ezta ere, isolatutako bizitokiaren inguruan, kanpin gune inguruan, aire librean dauden kirol guneen inguruan edo nekazal esplotazioen inguruan. Kasu guzti hauetan, babes muga 200 metrokoa da, buelta osoan.
- Bide berdeetan edo 2 metroko zabalerakoetan ehiztariak bi aldeetara, 250 metroko distantziara ondo ikusten badu, aurreko debekua ez da kontuan hartzen.
- Erbia eta untzia baimen bereziarekin bakarrik ehizatu daitezke.
- Azaroaren 30a arte, ehiza ordutegia da: 07:30etatik 17:30etara. Abenduaren 1etik aurrera, 8:00etatik 17:30etara. Ohiko ehiza postuetan, Orden Foralekoak barne, ordutegia da: eguzkia atera baino ordu bat lehenagotik, 17:30etara.

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI



GURE RENOVE PLAN BEREZIAREKIN JARRAITZEN DUGU

%20 ko deskontua gama zuriko etxe tresnetan

Garbigailuak, hozkailuak, labeak, sukaldeak...



◆ FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA: Durangoren kontra, partidu zaila

Denboraldiko hirugarren garai-pena du helburu gaur Hernanik Durangon. Bosgarren postuan da talde bizkaitarra, eta aurrez aurre izan direnetan, Hernanik ez du emaitza onik lortu. Hamar aldiz jokatu dute elkarren aurka, eta 6tan Durangok irabazi du; 3tan enpatatu egin dute, eta behin irabazi dute txuri berdeek. Partidua gaur, 17:00etan. ||

EMAKUMEZKOEN LIGA: Intxaurdi, aurkari zuzena, aurrez aurre

Sei puntura ditu aurkari gehienak Hernanik, eta gaur Intxaurdiri irabaziz gero, aurrerapusu haundia emango lukete, aurkari zuzena baita. Partidua Rezolan jokatu da, 19:30etan. ||

◆ BOLEIBOLA

Fortunaren kontra bihar, Pio Barojan

Hernanik CD Fortuna taldearen kontra neurtuko ditu indarrak bihar, 12:00etan. ||

◆ PALETA



Huizi eta Goikoetxeak Sakanako txapelketako finala dute gaur Hernaniko bi paletarik, Huizi eta Goikoetxeak Sakanako txapelketako finala jokatu dute gaur, 1go mailakoa. Aurrean Judit eta Maitek osatutako bikote nafarra izango dute. Partidua Etxarri Aranatzan jokatu da, gaur, 12:00etatik aurrera. ||

◆ ARETO FUTBOLA Laskorain aurkari gaur, kiroldegian

Horbel Tabernak Tolosako Laskorainen kontra jokatu du gaur Kiroldegian. Txikitatik areto futbolearen aritutako taldea da kontrarioa, beraz, ez dute partidu erraza espero. 18:30etan hasiko da. ||

◆ SASKIBALDIA

Asteburuko bi partidua irabazita, sailkapenean salto haundia

Bi partidu jokatu ditu asteburuan Teklan Laser senior taldeak. Aurrenekoa, kiroldegian jokatu du gaur, 16:15etan, Bergarako Soraluzeren kontra. Eta bigarrena, uholdeen ondorioz atzeratutakoa, bihar jokatu du. Urretxun izango da neurketa, Urola Garaiko taldearen kontra; 17:00etan hasita. Bi partidua irabaziz gero, Hernanik nabarmen egingo luke gora sailkapenean. Azken partiduetan bi aurrenekoei irabazteko gai izan da talde hernaniarra; baina baita azkenaren kontra galtzeko ere. ||

◆ ERREMONTA

Finalerdietako aurreneko partidu gaur, Galarretan

Matxin III eta Urrutia Igoak Zeberio II eta Ionon kontra jokatu dute gaur, Binakako txapelketako aurreneko finalerdia. Galarretan jokatu da, eta jaialdiko bigarrena izango da. ||

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	Kadeteak	Langile B-Langile D	Kiroldegian	Gaur 12:15
3garren maila Durango-Hernani	Durangon	Gaur 17:00		
Emak. Liga Hernani-Inbaurdi	Rezolan	Gaur 19:30		
1go Erregionala Beasain-Hernani	Igartzan	Gaur 15:30		
Jub. Euskal L. Hernani-Aretxabaleta	Zarkumendegi	Gaur 15:30		
Jub. 1.maila Hernani-Luberri	K. Lekuona	Gaur 18:00		
Kad. Ohorezkoa. Beti Gazte-Hernani	Mastegin	Gaur 17:30		
Kad. 1. maila Hernani-Trinberpe	K. Lekuona	Bihar 16:00		
Inf. Txiki Txapel. Tolosa-Hernani	Usabalen	Gaur 12:00		
Inf. 1. maila Kostkas-Hernani	Matigoxot.	Bihar 12:45		
Kad. F11 La Salle-Hernani	La Sallen	Gaur 11:00		
Inf. F8 Umileta-Hernani	Urnietan	Gaur 12:00		
Inf. F8 Hernani-Tolosa	Haranen	Bihar 16:00		
Aleb. Hernani-Tolosa	Argxaon	Bihar 10:30		
SASKIBALDIA				
Seniorrak Hernani-Soraluze	Kiroldegian	Gaur 16:15		
Seniorrak Urola Garaia-Hernani	Urretxun	Bihar 17:00		
Jub. 2. urtea Hernani-Azeriak-Irun	Kiroldegian	Gaur 18:00		
Jub. 1go urtea Internacional-HernaniBuruntza	Monsen	Gaur 10:00		
Kad. 2. urtea HernaniSansonari/Mondragon	Kiroldegian	Bihar 12:00		
Kad. 1go urtea HernaniAdarra/Oiarso	Kiroldegian	Bihar 10:00		
BOLEIBOLA				
Seniorrak CD Fortuna-Hernani	Kiroldegian	Bihar 12:00		
Kadeteak CD Fortuna-Hernani	Pio Barojan	Gaur 12:00		
Alebinak Langile C-Elizabxo	Kiroldegian	Gaur 12:15		
	Kadeteak			
	Langile B-Langile D			
	PELOTA - Gipuzkoako Txapelketa			
	Infantilak Iker Loiarde/Usurbil	Hernanin	Gaur 16:30 (1)	
	Jubenilak Leonet-Garcia/Añorga	Hernanin	Gaur 16:30 (2)	
	Jubenilak Urkizu-Etxegoien/Aurrera Saiaz	Hernanin	Gaur 16:30 (3)	
	Seniorrak Ilunpe/Arrieta-Gorrozkategi	Bergaran	Bihar 11:30	
	PALETA - Sakanako Txapelketa			
	1go maila Huizi-Goikoetxea-Judit-Maite	Etxarri-Aran.	Gaur 12:00	
	ARETO FUTBOLA			
	1go maila Horbel Taberna-Laskorain	Kiroldegian	Gaur 18:30	
	ERREMONTA			
	1. partidua Etxabe II-Zubiri/Matxin VI-Saldias	Galarretan	Gaur 16:00	
	Azysa Txapelketa Matxin III-Urrutia I/Zeberio II-Ion	Galarretan	Gaur 16:00	
	3. partidua Urtasun-Lizaso/Endika-San Miguel	Galarretan	Gaur 16:00	
	4. partidua Juanmartiñena-Aizpurua II/Urrutia-Olazar	Galarretan	Gaur 16:00	
	ERRUGBIA			
	Mutilak Ohor. B L'Hospitalet-HCRE	Felxa Lar.	Bihar 12:30	
	Neskek E. Liga Hernani-Durango	Aieten	Gaur 12:30	
	Senior B Independiente-Hernani	San Romanen	Bihar 16:00	
	Jubenilak Independiente-Hernani	San Romanen	Bihar 14:30	
	Kadeteak Hernani-Durango	Aieten	Gaur 11:15	
	Infantilak 16 Hernani-La Unica	Aieten	Gaur 10:00	
	Infantilak 14 Bilkura	Mutilban	Bihar 10:30	
	Alebinak 12 Bilkura	Mutilban	Bihar 10:30	
	Benjaminak Bilkura	Mutilban	Bihar 10:30	

◆ ATLETISMOA-DONOSTIAKO MARATOIA

Argazkia bihar Atanon, karrera aurretik

Donostiako Maratoia izango da bihar, eta bertan izango dira hernaniar ugari. Hernaniko Kronikak argazkia aterako die karrera hasi aurretik. Hitzordua 08:30etan egin dute, Atano IIIa pelotaleku aurrean. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespikatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I URTEURRENA

† Ignacio Azpiolea Olarra

"PITTIKAR"

2010eko azaroaren 17an hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Emaztea: Maria Liceaga; Seme-alabak: Guillermo (†), Ana eta Joxe M^a Genua, Milagros eta Jose Ignacio Ochotorena, M^a Engracia (†), Jose Antonio, Graxi eta Juan M^a Ugalde; bilobak, birlobak, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde otoiiz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo **Urteurreneko Mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2011ko azaroaren 26an

Helbidea: Santa Barbara 29, 1 esk

I URTEURRENA

† Raimundo Mendizabal Lecuona

JAUNA

2010eko azaroaren 30ean hil zen Hernanin, 73 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Emaztea: Manuela Aramburu; Seme-alabak: Pablo (†), Patxi, Mirari eta Evaristo Garcia; bilobak: Nahia eta Itsasne; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde otoiiz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo **Urteurreneko Mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2011ko azaroaren 26an


Helbidea: Gure Ametsa etxea - Osifiaga auzoa

I URTEURRENA

Raimundo Mendizabal Lecuona

-Goian bego-

*Bi biloba gaude
izarrei begira
aitonak noiz egingo
keinu eta dizdira.*



Zure bilobak: Nahia eta Itsasne.

Hernanin, 2011ko azaroaren 26an

I URTEURRENA

† Miguel Arraras Ulayar

2010eko azaroaren 28an hil zen, 86 urterekin

-Goian Bego-

*"Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu"*



Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA, goizeko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2011ko azaroaren 26an

FUNERARIA ORBEGOZO ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 ✚ **FARMAZIAK** ● Egumez: **Odriozola** URNIETA - Idiazabal, 18 - 943 334014 ● **Gauzez**: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Eguraldi motela izan dugu. Laino-tuta egongo da eta egunsenti hotza izan dugu. Gauean euri-zipritin batzuk bota ditzake. Min.7° / Max.15°
BIHAR Lainoak gutxitu eta giro argiago izango dugu. Bihar goizean ere, hotz egingo du. Eguerdi partean berotzen hasiko da. Min.7° / Max.16° (euskaime)



GOIZUETAN FERI EGUNA GAUR:

Arta-zuritzen, ale gorriaren bila

Feria goizeko 10:00etan hasiko da; aziendarena Isarriko frontoian jarriko dute, eta nekazal eta artisauena Plazan. Festa iluntzera arte luzatuko da.

FERI eguna dute gaur Goizuetan, eta 60tik gora postu jarriko dituzte artisauek eta nekazal produktuekin. Bertako bereizgarri diren betizuak eta bestelako azienda ere ez da faltako, hala nola, sasi ardiak, behorrak, astoak... Urteetik urtera oihartzun handiago du azokak, eta ilunabarra bitarte, bertako eta inguruko bizilagun ugari espero dituzte antolatzaileek.

Goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00ak arte izango da zabalik azoka, eta bertako animalia edo produktuak ikusteaz gain, kutixi edo kapritxoren bat erosteko aukera ere izango dute bertaratutakoek. Jarriko dituzten postuetatik asko gainera, 33 inguru, inguruko herrietatik etorritakoenak izango dira. Beraz, antolatzaileak gustura dira azoka hartzen ari den dinamikarekin.

Ale gorria bilatu, eta muxu
 Azoka orduan ikuskizuna ezin falta, eta hainbat artisauek bertan ariko dira harria tailatzen, harizko galtzerdiak egiten... baina



Denetarikako postuak jarriko dituzte gaur, 60tik gora.

aurtengo nobedadea jubilatua izango dira, arta-zuritzen ariko baitira. Lehengo erara ariko dira, eta ale gorriaren bat topatzen duenak, aukera izango du aldamenen duena, edo gustuko duena muxukatzeko; ikusteko modukoa izango da!

Ilunabarrera arte, festa
 Azokaren ostean aizkolariak jarriko dute festa. Lehian Barronetxea eta Pagola, eta Larra eta Paolla ariko dira. Ondoren, ia herri guztia elkartuko da baz-

kaltzera, 500 lagundik gora. Eta festa guztian izan ohi den bezala, musikak lagunduta agurtuko dute eguna. Modestok jarriko du azken ordura arteko saltsa. ||

EGUNEKO EGITARAUA

10:00-13:00 Azienda feria Isarriko pelotalekuan eta nekazal eta artisauek Plazan.
12:30 Aizkolariak Plazan
14:30 Bazkaria
Ondoren Musika, Modestorekin
Ilunabarrean Erromeria Modestorekin, Musika Plazan

❖ ZINEA

‘El arbol de la vida’ drama generoko pelikula gaur eta bihar, helduentzat

Kritika oso ona jaso duen *El arbol de la vida* filma ikusteko aukera izango da asteburuan Biterin. 138 minutuko pelikulan, Brad Pitt aktore ezaguna da protagonista, eta 50garren hamarkadako ipar-amerikako famili zorrotz batean dago girotua. Gaur bi emanaldi izango dira, arratsalde 19:30etan, eta gauzez 22:30etan. Bihar bakarra, 19:30etan hasita. ||

Disney-en ‘Phineas & Ferb’ filma jarriko dute, publiko guztiarentzat

Phineas & Ferb marrazki bizidunetako seriearekin pelikula egin berri du Disney-ek, eta gaur eta bihar ikusgai izango da Hernanin, publiko guztiarentzat. Bi emanaldiak Biterin izango dira, arratsaldeko 16:30etan hasita. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

- Lokal komertziala** alokatzen dut. 55m2. Urbieta kalean. Deitu: 605 724 926
- Etxea salgai Zikuñagan.** 180.000 €. Dena berria, 3 gela, komona, sukalde handia, dena kanpoaldera. Kalefakzioa eta amueblatua. Sartzeko. Deitu: 615 741 799
- Pisua salgai Marielutsen.** 80m2, 3 gela, 2 komun, sukalde-egongela, 90m2-ko terrena, 2 terraza handi. Eguzkitsua. Berritua. Deitu: 636403081
- Bizikleta eramateko** erosiko nuke 2 atetako furgoneta batentzat. Deitu: 647 545 087
- Maritxu haurtxokoak udaleku zerbitzua eskeintzen du** gabonetan, aste santuan eta udan. Adinak 2-11 urte, epea irekita. Deitu: 943 05 85 50 (Inma edo Arantxa)
- Apartamentu polit-polita salgai kale nagusian.** Eraikin berria, aszensora, kalefakzioa, estudioa, eguzkitsua. **Guztiz kanpokaldera. Ezin hobeto jakintzia.** Deitu: 680 286 645
- Etxebizitza salgai.** Elizatxo auzoan, 90 m2, 3 logela, egongela eta jantokiarekin, eta 200 m2-ko terrena. Argitsua eta toki lasaia. **Interesatuak deitu: 675 179 804**
- Enara Goikoetxea.** Sendabide energetikoa, Kristaloterapia, Ayurveda Masajea, Obsidiana harrien masajea bera, Bach loreak, Metamorfikoa, Reikia, Argi Kanalak Tarot terapeutikoa. Tel.:649700762.
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, **prezio bereziak eta pertsonalizatuak.** "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. **Atzietan 2, behean.** Tel. 943 55 32 78.
- Alicia C.C.:** Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

cenor BALANTXA
ELEKTROGAILUAK

Behar dituzun elektrogailu guztiak ditugu!!

NAGUSIA,17
☎ 943 33 40 22

Hilabete honetan eskaintza zabala kafe-makinetan

IRIZAR ARDOAK

Telefona: 943 55 10 01 Akarregi, 3c partzela 20120 HERNANI